

ZOR IZAKI BA.



(FELIPE ARRESE TA BEITIA JAUN ONARI)

Ero egiñik nago, Felipe,
Arri biurra, jauziya,
Ikusirika gaurko zenbaiten
Ari-era ta auziya.
Nai lioteke, ikuskizunik
Geiago bage, guziya
Lur-gañ onetan arki dezaten,
Gaiari eman biziya.

Gogoratzen zat, gizon oriek
Ote daukaten biotzik;
Bada batere izan ezkerro,
Nola, aiñ senti kamutsik,
Ez baitagoan; mundu ontako
Gusto likichak utzirik,
¿Nola eztira zaletzen, goiko,
Garbi, betiko aitarik?

Zeñen e-zer-rak geran ordia
Egítik urriñ baguaz,
Gai-gríñ ur zikiñ lintzira loitan
Bururanoşe sartuaz,
Oroitu bage, baldiñ badare
Beti betiko zeruaz....
Baña, gizona ez kupitzea
Geiago bere buruaz!

O erakuste berdiñ bagea,
 Gaurko gizon—koi oena!
 Zertaz jo dezu ene anima,
 Egiñ dizuten omena?
 Bi milla bider, ez da munduan
 Ere bizitzik onena,
 Gero betiko zori arretan
 Ustea ematen duena?

Gai-dunak gera, eziñ ukatu,
 Bañon, animaz, biziak;
 Eta onela arkiturika
 Almen ta eskuaz jantziak
 Kontu eman ber ipintzen gaitu
 Egiten degun guziak;
 Ordea, ukatu ta ¿zer? alperrik
 Iñaulizketa guztiak.

Bestelaseko egunak dira
 Uts-urdiñ ortaz goitika,
 Iru bidertan Doatsuaren
 Betatz ederra gurtika
 Geratu bage, makurtu eta
 Diardunena, pozika,
 Jainkoa aomendu! ¿bada onekiñ
 Berdiñ deikean lanika?

Onera baño lenago bada,
 Beste leku bat, ordia,
 Jaun-zuzentasun errukitsuak,
 Dalako ezin ta obia,
 Irtenik asko mundu ontatik
 Pekatu-erru kaltia
 Pagatu bage, oso chautzeko,
 Antolatu ta gordia.

Gizona ez da, lotua, sorta;
 Esku osoa berekin
 Darama, eta, egin guztia
 Berekoitzen du, orrekin;
 Ongia zeruz sariŕsten bada
 Gaizkia berriz zerekin?
 Zuzenpidean; arras kontrara
 Dan beste zerbait gauzekin.

Egi oietan oña jarri ta
 Felipe, danak batuak,
 Ez kontenturik urte artean
 Zenbaiti beren kantuak
 Kanta izana egun Elizan
 Arkitzen gera, santuak,
 Aipamen batez danak ondra naiz
 Ezagun ta egitekuak.

Gure sinistmen goikoak digun
 On-nai zabalak mugikan
 Ez daduka, ta, garamiz gaitu
 Garbitegira, andikan
 Gaŕo aiechek zerurontzeko
 Azufre-garrak illikan
 Otoitz-ur-epel proga besterik
 Erakuts bagetanikan.

Alai gaitean, ene Felipe,
 Zerutarrekin batera,
 Gure Fedea pozgarria da
 Eta ill-oe lurrera
 Goazenean, baita; betiko,
 Ango lurtuak atzera,
 Bizitzekoak baitira, zeren...
 Gai-utsezkoak ez gera.

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.